

ALBE

BERTSO AGENDA

2022 - 23 / URRIA - URTARRILA



BIHOTZA GAZTE - ALBE GALA - TXAPELONDO - BERTSO JIRAK

ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA

www.albe.eus

SARE SOZIALAK

 albe_bertso

 @albetsolari

 Algortako Bertsolari Eskola

HARREMANETARAKO

Martikoena 16, 2. solairua, 2. bulegoa
Algorta (Getxo)
48992 Bizkaia

605704385

albegetxo@gmail.com

Diseinua: KermanDF

Laguntzaileak:





- 4** EKITALDIAK
- 7** BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA
- 8** ASE BERTSOZ EKIMENA
- 10** ARGAZKI GALERIA

-  *Jaialdia*
-  *Berezia*
-  *Bertso jira*
-  *Txapelketa*
-  *Ase Bertsoz*

AZAROA




BARIKUA

BIHOTZA GAZTE

19:00 ALGORTAKO AZEBARRI

Beteranoen ordua, abiapuntu otordua. Ekitaldi berezi honetan asko aritutako bertsolari bi ibilbide laburragoko beste biren ondoan ipiniko ditugu bertsotan. Belaunaldien arteko topagune izan gura luke tradizio handiko bertso saio honek.

Aurten San Martin egunez egiteak kolorea eta berotasuna gehituko dizkio ospakizunari: kopaua, bertsoak, soinua eta panderoa... Zatoz gure kalera, baserritar legera!!!

**Bertsolariak:**

Anjel LARRAÑAGA

Juan Jose EIZMENDI "Loidisaletxe II"

Paule LOIZAGA

Peru ABARRATEGI

ABENDUA



EGUENA

SOPELAKO BERTSO
JIRA MUSIKATUA

19:00 SOPELA

Ez al da atsegina bertso ederrak entzutea, tarteka musikaz lagundurik, pote bat hartu bitartean? Sopelan aspaldi deskubritu zuten plazer mota hori, eta urtero deitzen digute bertan bertso jira antolatzeko.

Hainbat bertsolari igaro dira plaza horretatik: Arrate Illaro, Igor Elortza, Uxue Alberdi, Sustrai Colina, Maddalen Arzallus... Aurten Sopolako bazterrak berriz jantziko ditugu bertsoz eta doinu alaiz. Eta hi hori galtzeko kapaza al haiz?



2018ko bertso jira / albe.eus

Bertsolariak:

Alaia MARTIN

Kerman DIAZ

ABENDUA



DOMEKA


ALBE GALA

12:00

ALGORTAKO IGERETXE HOTELA

Bertso urte oparoari tamainako errematea zor zaio. Algortako Ereaga hondartza eszenatoki natural zoragarria dugu helburu horretarako, eta Igeretxe hotela ostatu ezin egokiagoa: koktela, kanpoko eta etxeke bertsolariak, bideo emanaldia, musika zuzenean, bertsoak, kantu eta dantza...

Aurten, gainera, urte birik behin banatu ohi dugun URREZKO AHOBIA emango diogu ibilbide luzeko bertsolari bati!!! Mañukorta, Lazkano, Areitio... nor ote da aurtengo aukeratua?



Bertsolariak:

Andoni EGAÑA

Uxue ALBERDI

ALBEko bertsolariak

+URREZKO AHOBIA

ABENDUA



DOMEKA

LEIOAKO NEKAZARITZA AZOKAKO BERTSO SAIOA

14:00

J.R AKETXE PLAZA

Nekazaritza azoketan begiak bete-bete egiten zaizkigu baserritarrek erakusgai ipintzen duten jeneroa ikusita. Sudurrez eta ahoz ere polito gozaten dugu, gazta usainez eta txakolin txinpartatsuz.

Aurten ere bertso jaialdi ederra prestatu dugu. Erika ditzagun, ba, bihotz-belarriak ahotik harako bertso biziz. Etorriko zara berriz!



Bertsolariak:

Maialen AKIZU

Maddalen ARZALLUS

Etxahun LEKUE

Aitor SARRIEGI

Gai-jartzailea: Beñat VIDAL

ABENDUA

24

ZAPATUA

OLENTZERO EGUNEKO BERTSO SAIOAK

13:00 URIBE KOSTA

Olentzerok makina bat lan izaten du gure eskualdean, hainbat herritan ospatzen baita ikazkin eskuzabalaren jaia.

ALBEko gaztetxoentzat ere aukera polita izaten da opariak hartu ez ezik, haiek ere euren bertsozko loreak guri oparitzeko.



2019ko Areetako saioa / albe.eus

Egon adi gure sare sozialei ekitaldiak non eta zer ordutan izango diren jakiteko. Horra, horra gure oparia!!!

ABENDUA

27

MARTITZENA

TXAPELONDO BERTSO JAIALDIA

18:00 ALGORTAKO
MUXIKEBARRI ZENTROA

Aurten aspaldiko ametsa beteko dugu. Txapelketa Nagusia amaitu eta egun gutxira hango zortzi finalistak Muxikebarrira etorriko zaizkigu bertsoan.

Halandaze, aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusia, Getxon abiatu ez ezik, Getxon ere izango du amaitu osteko geltokia, zortzi finalistak bertsoan etorriko baitzaizkigu, lehiaketa puntuagarriaren presiotik at, euren onena ematera. Ondo etorri Txapelondo!



Bertsolariak:

Maialen LUJANBIO

+ Txapelketa Nagusiko gainerako finalistak

ABENDUA

29

EGUENA

ERANDIOKO BERTSO JIRA MUSIKATUA

19:30

LA PLAZA TABERNATIK
HASITA

Tradizio luzeko bertso jira dugu Erandiokoa. Berbots Euskara Taldeko lagun nekazinekin daukagun harreman historiko eta emankorrari esker, bertsolariak protagonista izango dira, berriz ere, urtea amaitzeko bertako kale-tabernetan egingo den bertso jiran.

Esan daiteke Berbots bertso hots bilakatzen dela gurekin elkartzen direnetan. Eutsi goiari, lagun hoshideok!



2018ko bertso jira / albe.eus

Bertsolariak:
Oihana BARTRA
Nerea ELUSTONDO

URTARRILA

14

ZAPATUA

ALBETI BAT EGUNA

13:00

ALGORTAKO
AZEZBARRI ELKARTEA

ALBEk berrogeita bi urteko historia dauka bizkarrean, eta asko dira bertatik pasatu diren bertsolariak eta bertsozaleak. Egun berezi honetan lehengoak eta oraingoak elkartzea dugu helburu, baita aldi laburrez igarotakoak eta eskolakoen lagun hurreko zein asagokoak ere.

Plan gozoa prestatu dugu: bertso bermuta, bazkaria, bertso paperak, kantu eta soinu, bertso ariketa bereziak... ah! AL BEzain ondo pasatzea dugu helmuga. Gonbidatuta zaude!



2022ko ALBETI BAT eguna Algortan / albe.eus

ABENDUA

18

DOMEKA

BERTSOLARI TXAPELKETA
NAGUSIKO FINALA

17:00

IRUÑEKO
NAFARROA ARENA2017ko txapelketako finala / XDZ
Argazkilaria: Alberto Eloegi

Txapelketa Nagusiko finala abenduaren 18an izango da. 2005etik finalak Barakaldoko BECen egin eta gero, tokiz aldatuko da aurten: Iruñeko Nafarroa Arenak hartuko du lekukoa. Oraingo, Maialen Lujanbio dugu, aurreko edizioko txapeladuna izanik, finalean sailkatuta dauden bertsolari bakarra. Finalerdietako irabazleek eta puntu gehien lortzen dituzten bertsolariek osatuko dute zortzikotea.

TXAPELKETAKO FASEAK ETA SAIOAK

LEHEN FASEA

GETXO

IRAILAK 24 - 17:00

ARRASATE

IRAILAK 25 - 17:00

GOTAINE-IRABARNE

URRIAK 1 - 17:00

GASTEIZ

URRIAK 2 - 17:00

DONOSTIA

URRIAK 8 - 17:00

LIZARRA

URRIAK 9 - 17:00

FINALAURREKOETAKO LEHEN ITZULIA

ELIZONDO

URRIAK 22 - 17:00

DONIBANE GARAZI

URRIAK 29 - 17:00

IRUN

AZAROAK 5 - 17:00

DURANGO

AZAROAK 12 - 17:00

FINALAURREKOETAKO BIGARREN ITZULIA

AMURRIO

AZAROAK 19 - 17:00

BAIONA

AZAROAK 26 - 17:00

BILBO

ABENDUAK 3 - 17:00

FINALA

IRUÑEA

ABENDUAK 18 - 17:00

Saioetako sarrerak, www.bertsosarrerak.eus atarian eskuragarri

ASE BERTSOZ

ALGORTAKO AZEBARRI ELKARTEAN



BERTSO PIKOTEOA
ALBEKO BERTSOLARIEKIN

HILEKO AZKEN OSTEGUNETAN

ALBEren eta AZEBARRIren arteko elkarlanetik sortutako bertso ekimen hau 2019an abiatu zen. Ordutik hilean-hilean egin ohi dugu ASE BERTSOZ izeneko bertso dinamika hau Azebarri kultur txokoan. Pikoteo arin baten aitzakian, bertsoan aritzen dira ALBEko bertsolariak, gai edo egoera desberdinetatik abiatuta.

Kantari zein entzule har daiteke parte saio bizi, umoretsu eta mamitsu hauetan. Ederto pasatzen dugu, baina baina zu bazentoz, hobeto pasatuko genuke. Egin proba behin, eta asetu bertsoekin!



27 URRIA

24 AZAROA

26 URTARRILA



BERTSO JAIALDI MUNDIALA 2022





HITZAREN DANTZA 2022





ALBE
**Algortako
Bertsolari
Eskola**

